

# ITSASOS

**Itsasoa hemen hasten da**  
**El mar empieza aquí**

## **"ITSASOS" KANPAINAREN HELBURUA ITSASOAN AMAITZEN DIREN HONDAKINEI BURUZ KONTZIENTZIATZEA DA.**

Donostiako Udaleko Ekologiako zinegotzitzak herritarrak kontzientziatzeko kanpaina bat hasi du, hiri-hondakinak sortzea prebenitzeari eta behar den tokian uzteari buruz informatzeko eta ohartarazteko, askotan itsasoan amaitzen dira-eta.

Hautatutako logoa, **ITSASOS**, kanpainak zabaldu nahi duen mezuaren sinbolo bete-betekoa da, larrialdi-deia, itsasoan hondakinak eta mota guztietako flotatzaileak ugaritzen ari direlako, batez ere plastikoak, mundu osoan arazo bihurtu direnak. Kalkulatzen da urtero 8 milioi tona plastiko amaitzen direla itsasoetan, itsasoko zaborraren % 80 izateraino.

Ekologiako zinegotziak, Marisol Garmendia sozialistak, adierazi du “egiaztatuta dagoela nondik datorren itsasoan biltzen den zaborra. Plastikoaz gain, hondakin nagusietako bat zigarrokinak dira. Jakitun izan behar dugu, ez bakarrik erretzeak osasunari egiten dion kalteaz, hondartzetako hanean lurperatzen ditugun zigarrokinak edo paseatzen ari garela lurrera botatzen ditugunek non bukatzen duten ere kontuan izan behar dugu. Izan ere, gehienetan itsasoratzen dira, estolderietan zehar.”

**ITSASOS** kanpaina udan egingo da batez ere, nahiz eta udazkenean eta neguan ere hainbat ekintza egingo diren, hiriko auzo guztietan.

AZTIK Donostiako Udalarekin elkarlanean egindako azterlan batek aditzera eman zuen zer arazo sortzen dituzten -eta nola banatuta dauden- plastikozko hondakinak Kontxako badian. Azterlan horretan azaltzen zen itsasoan biltzen den zaborra lehorretik datorrela; mikroplastiko eta mikrozuntz gehienak itsasotik sartzen direla badian; eta zigarrokinak hondakinik ugariak direla hondartzetan, batez ere sarbideetan: Kontxan, hondakin guztien % 38 dira, eta Ondarretan, % 50.

“Kanpaina honen bidez, herritarrak egoeraz jabeaz eta egoera hori lehenagotzeko dugun ahalmenaz kontzientziarazi nahi ditugu, hondakinak bide publikoan banatutako paperontzi eta edukiontzietan behar bezala utz ditzaten. Bestela, zoritxarrez, itsasoraino joaten dira”, Garmendiak adierazi duenez. “Jabetu behar dugu hondakin plastikoak ugariak mikroplastikoak sortzen dituela azkenean, eta hasiak garela horiek arrainen barruan aurkitzen. Gero, geuk jaten ditugu arrain horiek”.

Azken urteotan hainbat neurri ezarri dira hondartzetan hondakin plastikoak sorrarera murrizteko: jada ez da plastikozko edalontzirik erabiltzen hondartzetako txiringitoetan, ez lastotxorik, ez eta plastikozko platerik edo mahairik ere. Helburu hori izan zuen Zero Plastik kanpainak, hotel eta apartamentu turistikoak inplikazioa izan zuenak.

# ITSASOS

**Itsasoa hemen hasten da**  
El mar empieza aquí

Ilido horretatik, Ekologiako zinegotzitzak, uda honetan, gomendatuko du hiriko hiru hondartzetan EZ erretzea, zigarrokinek hareatzetan eragiten duten inpaktua murriztu nahian. Gainera, eskatzen dutenei, hautsontzi-konoak emango zaizkie, zigarrokinak hondarrean lurperatu eta, gero, olatuek itsasora arrastaka eraman ez ditzaten. Hondartzetako megafonia-sistemaren bidez, ingurumenari buruzko mezuak emango dira aldian-aldian.



Munduko hiri askotan, bai eta euskal herri batzuetan ere, ohikoa den bezala, seinaleak jarriko dira estolderiako sareetan, ohartarazteko “itsasoa hemen hasten dela”, sare horietatik hondakinik ez botatzeko beharra nabarmenduz, ur gainean gelditu eta itsasoa kutsatzen amaitzen baitute.

**ITSASOS** kanpaina sareetan eta ohiko hedabideetan ikusgai egongo da, hala nola Dbusen pantailetan. Hondartzan bertan informazio-guneak jarriko dira, eta naturaguneetan hondakinak biltzeko eta garbitzeko jardunaldiak egingo dira, Arrauning bezalako erakundeekin elkarlanean.

# ITSASOS

**Itsasoa hemen hasten da**  
El mar empieza aquí

Era berean, beste udal-sail batzuen inplikazioa ere bilatuko dugu, kanpainarekin bat egin dezaten. Hala, auzoetako jaiek, Jazzaldiak, Zinemaldiak, Aste Nagusiak eta ibaian nahiz itsasoan egiten diren kirol-jarduerek errefortzu bat izango dute kanpainaren aldetik, hondakinak bereizi gabe ez botatzeko, eta itsasoan ez amaitzeko.



Azti taldeko kide bat harea-laginak hartzen Kontxan

Joan den apirilaren 9an, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko 7/2022 Lege berria argitaratu zen. Bertan, prebentzio-neurri batzuk jasotzen dira hondakinen sorrerari dagokionez, besteak beste itsas-inguruneari erasaten diotenak.

Lege horren arabera, 2026rako helburua da % 50 murriztea merkaturatzen diren hondakin plastikoen pisua, eta 2030erako, % 70.